ASTEKARIA | 2017ko martxoaren 31n | XX. urtea | USURBIL | 694. zenbakia | www.noaua.eus TOKIKOM

# noaua




**GuraSOSek ekimen juridiko berriak iragarri ditu**

**Soinurbil Musika Astea, iruditan**

**Euskal Herriko Itzulia Usurbildik igaroko da apirilaren 6an**

## Asteartean gaueko 23:30ak aldera iritsiko da

# Hemen dator Korrika

# Tapak eta aurkibideaK prest




**Agur esan diogu 2016 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2016ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



## FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

### AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

·GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:

**·HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ**
**·HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ**

(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK, UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA EDO BESTE HILERRI BATERA...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

**943 36 21 63 (24H)**

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE




• BEILATOKI GUZTIAK · ERRAUSKETAK

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...) HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA





Garbiñe Biurrun



Kike Amonarriz

# "Galdeketara bidean" solasaldia

Apirilak 5, asteazkena, 19:00etan Sutegin. Doan.

Antolatzailea: noaua Laguntzaileak: herritzartu

## Albistea iruditan

# Herria, inoiz ikusi ez bezala

Thomas Pesquet astronatuta frantziarrak, Nazioarteko Espazio Estaziotik Donostiari atera dion ondoko argazkia zabaldu du egunotan sare sozialen bidez. Azaroaz geroztik ingeniari gisa lanean dabil bertan. Munduko txoko ezberdinetako irudiak atera eta partekatzen aritu da azken aldian, Twitterreko bere @Thom_astro izeneko kontutik.

Martxoaren 23an Donostiako badiari atera zion argazkia. Kontua da, Gipuzkoako hiriburuari soilik ez, inguruko udalerriak ere erretratatu zituela. Argazkiaren eskuin aldera begiratzen baduzue, hortxe ikusiko duzue bihurgunez beteriko Oria ibaia.



**Thomas Pesquet astronatuta frantziarrak espaziotik ateratako argazki honetan Aginaga, Usurbil eta Zubieta ikus daitezke.**

**Zubieta aldeko zuloak ere, begibistan**

Eta errio ertzean, Aginaga, Usurbil eta Zubieta. Inoiz ikusi ez bezala. Bide batez, ikusteko modukoa da espaziotik ere, erraustegi, makrokartzel edota industriagunea eraikitzeko Zubieta gaina nola dagoen zulatua.

## Laburrean

### Usurbil F.T.-ren txokoetan izen-ematea, ixtear

Ostiral honetan, martxoaren 31n itxiko du Usurbil F.T-k, apirilaren 18tik 22ra (09:30-12:30 artean) antolatu dituen kirol txokoetan izen emateko epea. Apuntatzeko gerturatu Harane futbol zelaira.

### Ipuin kontaketa saio bikoitza Sutegin

Apirilaren 4an eta 6an Maite Frankoren ipuin kontaketa saioak antolatu dituzte Sutegi udal liburutegian 18:00etan. Hilaren 4koa HH4koentzat, hilaren 6koa HH5ekoentzat.

### Doluari buruzko hitzaldia Aginagan

Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak Gipuzkoako Eskola Txikiko Koordinakundearekin elkarlanean antolatu dute hitzaldia, apirilaren 3an, arratsaldeko 16:30etan Aginagan.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Garazi Lizaso Manterola

# Lana vs enplegua I

Martxoaren 8aren ajearekin gabiltzan honetan nahiko lan dugu jasotako datuen digestioa egiten. Eurostatek diosku emakumezkook, batez beste, 5 ordu eta 59 minutu egiten dugula lan etxean eta gizonezkoek, aldiz, 2 ordu eta 20 minutu. Emakunderen arabera, emakumeok gizonezkoek baino %25 gutxiago kobratzen dugu. Prekaritateak emakume aurpegia duela askotan entzun dugu, hala nola, lan baldintza kaskarrenak eta enplegu ezegonkorrenak (zatikako ordutegia duten lanpostuen %85,3 emakumeok betetzen dugu) egokitzen zaizkigu. Eta jarrai nezake...

Labur bada ere, lana eta enpleguaren arteko bereizketa egitea garrantzitsua iruditzen zait. Enplegua definitzekotan aitortua dela esango nuke, ogibidea; orokorrean, jardunaldi bat bete behar izaten dugu enpresan edo lantokian eta horren trukean, kotizatzeaz gain, kobratu ere egiten da. Beraz, eskubideen artean (gutxienez) gaixo gaudenean lanera ez joateko eta opor ordainduez gozatzeko aukerak ditugu. Ikastolan ikasi bezala, lehen, bigarren eta hirugarren sektoreak osatzen dute.

Lana, berriz, askoz ere kontzeptu zabalagoa da. Lanak enplegua bere barne hartzen du, baina baita ez aitortuak eta ikusezinak diren beste hainbat egiteko ere. Maitasunaren izenean doan egiten direnak eta egunerokoan ezinbestekoak zaizkigunak, hain zuzen. Oporrik gabe eta musutruk gauzatzen ditugu/dira bizitza sostengatzen diguten lanak: erosketak egin, zaindu, arropa garbitu, zintzilikatu, jaso, etxea txukundu, umeak eta zaharrak garbitu, ohea egin, sukaldatu, jaso eta abar luze bat. Zerrenda horrek eta gehiagok zerogarren sektorea osatzen du.

Argi dago, azken horiek emakumeen gain erori izan/ohi direla. Azken urteetan bizitza sostengatzen duten lanak justuago banatzen saiatu arren, oraindik datuek errealitatea beste bat dela erakusten digute. Azken finean, bizimodu eredu honek engranaje horren zati izatera bultzatzen gaitu, berau elikatzera eta horixe egiten dugu. Ez dugu ikusezina azaleratzen laguntzen, aitortzen. Hein handi batean konplize gara. Kapitalismoak ekoizteko garbi eta lehen mailako beharrak asetuta behar gaitu diru gehiago pilatzeko makinak bilaka gaitezen. Horretan dihardugu, itsu-itsuan.

Antzekotasun bat egitearren, pentsa dezagun izeberg batean: zati handiena urpean du eta azalean, txikiena. Gauza bera gertatzen da aurrez aipatutakoarekin: enplegua, lan aitortua edota lan produktiboa delakoa, izebergaren goialdea litzateke, ikusten dena; urpekoa, ikusten ez dena alegia, berau sostengatzen duena da, inolako errekonozimendurik gabea, itzalpekoa eta doakoa. Askotan pentsatzen dut, mahaian kolpe bat jo eta hau guztia irauli dezakegula. Horrek bizitza duinagoa suposatuko luke, guztiontzat.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | **Garazi Lizaso Manterola** | Luis Aranalde | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

**Ika-Mika**

# Zubietako talde kezkatu bat

Orain dela hamabost egun plazaratutako eskutitzari hainbat zehaztapen egin nahi dizkiogu azpian sinatzen dugun zubietarrok.

Etxe baten bizilagunen arteko arazo handia herriko bizimoduan eragiten ari da, modu kaltegarrian eragin ere. Horren aurrean, guk hau uste dugu:

Bizilagunen artean, hau da, izaki pribatuen arteko harremanetan, zuzeneko elkarrizketak hausten direnean, hainbat bide zabaltzen dira negoziatzen jarraitzeko. Egoera horietan guztietan, ulertzen dugu, tartean haserreak izatea, eta horiek adieraztea.

Ulertzen dugu, baita ere, lagun batzuk minduak izatea arriskuan ikusten dutelako Yoko Garbi soziedadea. Eta ulergarria egiten zaigu askotan sortzen diren zarata neurriz gainekoak bizilagunen bizimoduan duen eragina, eta horrek haserretzea.

Baina ez dugu ulertzen, eta ez dugu uste egokia denik, herriko bizilagun guztiak beste aldearen kontra erabiltzen saiatzea. Eta horretarako manifestazio publikoak egitea, panfleto izenpetu gabeak zabaltzea, irainetan behin eta berriz aritzea, eta horrelakoetan ibiltzea.

Herri Batzarra bitartekari lanean hasi delakoan gaude. Espero dezagun ataka gaiztotik ateratzen laguntzea.

**Pello Aranburu Mujika, Reyes Leiva Martin, Ane M. Agirre, Jose Jabier Bordagaray, Asier Azpiroz Iztueta, Marian Iztueta Etxabe, Itziar Basterrika, Joseba Mikel Askorreta, Ander Askorreta, Xabier Aranburu Leiva, Maria Jesus Bengoetxea, Edurne Arregi Iparragirre, Ane Izaskun Aranburu Leiva, Ainhoa Azpiroz Iztueta, Irati Bordagaray Martija.**

**Komikia**




**TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.**

# Milaka manifestari, erraustegiaren aurka eta alternatibaren alde

Milaka lagunek bat egin zuten Errausketaren Aurkako Mugimenduak, erraustegiaren aurka eta hondakinen kudeaketa alternatiboaren alde larunbatean Donostian antolatu zuten manifestazioarekin. Giro euritsuak ez zuen eragotzi, Anoetan hasi eta Bulebarrera arte, mobilizazioko aldarria ozen eta argi entzutea.

Mobilizazioak aurrera egin ahala gainera, geroz eta manifestari gehiago batu ziren. Nabaria zen amaieran, Bulebarreko kioskoan. Etengabekoa izan zen, denbora luzez, herritarren etorrera. Errausketaren Aurkako Mugimenduaren esanetan, jendetza batu zen pasa den larunbatean Donostiako kaleetan.






Milaka lagun batu ziren larunbatean Donostian. Irudi bilduma www.noaua.eus web orrialdeko Argazkitegian.

## Lan uzte gehiago Euskotrenen

Lan uzte eta gutxieneko zerbitzu egun gehiago datorren hilabetean Euskotrenen; apirilaren 3, 5, 7, 25 edota 27an 6:25-8:35 artean goizez, eta 17:25-19:35 artean arratsaldez; apirilaren 11n, 6:55etik 9:05era eta 17:55etik 20:05era. ■ Lan uzteak egiten ari diren langileen berri: Euskotren Amarako Langileak (Facebook) @EuskotrenAmara (Twitter)

## Erroizpe elkarteko Batzar Nagusia

Apirilaren 23an igandea, Txokoaldeko Erroizpe Elkarteko urteko Batzar Orokorra egingo da. Lehen deialdia goizeko 10:30ean izango da, bigarrena 11:00etan. "Hamaiketakoa ere izango da, animatu beraz bazkide zaretenok bertaratzera, zer entzun eta esana badago eta".

**Ika-Mika**

# Gazte Akelarrea: apirilak 13-16 Zornotzatik Igorrera!

Laugarren urtez jarraian, Ernai eta Aitzina gazte antolakundeko kideok udaberriko ekimena ospatuko dugu, aurten "Gazte Akelarrea" gisa izendatu duguna. Aurtengoak, gainera, badu berezitasuna: martxa eta topagunearen nahasketa bat izango da. Apirilak 13, 14, 15 eta 16an ospatuko dugu Zornotzan hasi eta Igorrera mugituz. Zehazki, apirilaren 13an mendi martxan abiatuko gara milaka gazte arratsaldez Zornotzatik eta gauez helduko gara Igorrera, bertan bi egunez egongo garelarik.

Aurten sekulako eskaintza kultural eta politikoa egongo da, hiru egunez aspertzeko denborarik ez izateko. Larunbatean manifestazio nazionala izango da eta beste hainbat sorpresa ere iragartzeke daude.

Hitzaldiei dagokionez hamaika izango dira jorratuko diren gaiak. Besteak beste, herri boteretzea prozesu iraultzaileetan, herrien sostengarritasuna, MST-ko eskola nazionala, lan prekarioen aurkako borrokak, ekonomia feminista, errefuxiatuen afera, marxismoa, ezkerreko mugimenduetako erresistentziak, Sobietar Batasunaren urteurrena, preso politikoen borrokaldiak EPPK-n, gazte mugimenduak, gazteak eta independentzia…

Bestalde, tailer eta txapelketa andana izango da. Zurgintza, serigrafia, harrigintza, txalaparta eta pasta tailerrak, eta beste alde batetik, esku pilota eta eskalada txapelketak egongo dira. Aisialdirako tartea ere egongo da, noski; bakarlari desberdinak, elektrotxarangak, zumba, high line erakustaldiak, giza-futbolina, tirolina… Gurasorik gabe libre jolasean ibiltzeko umeentzako gunea ere egongo da.

Gaueko sorginentzat ez da akelarrerik faltako. Gatibu, Sociedad Alkoholika, Willis Drummond, Gatillazo, Anari, Huntza, Koban, Riot Propaganda, Mafalda, La Jodedera… eta beste hainbat taldek astinduko dute oholtza ostiral eta larunbat gauean.

Aurreko ekimenetan egin bezala, aurten ere hiru su izango dira piztuta ekimenean zehar; elikadura, eskaintza kulturala eta zaintza. Hiru horiek berebiziko garrantzia eta pisua izango dute burujabetzaren aldeko bidean "praktika burujabeen aldeko apustua" egiten baitugu.

Igorreko Akelarrearen ostean, apirilaren 16an Gernikan ospatuko den Aberri Egunean emango diogu bukaera aurtengo udaberriko ekimenari.

Hiru eguneko bonoak salgai daude Aitzagan eta baita autobusean izena emateko aukera ere. Martxa, herria eta egitarauaren informazio osoa gazteakelarrea.info webgunean dago ikusgai. Usurbilgo gazteok ez gara etxean geratuko, eta sorgin dantzariak izango gara Euskal Herri librea lortze bidean.

Sugarren dantzan independentziara!

**Usurbilgo Ernai**

# Herritzarturen egoitza zabalik

Erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak egoitza propioa du Etxebeste kalean. Martxoaren 24an inauguratu zuen Herritzartuk. Erabakitze eskubidearen aldeko bilgunetik adierazi dutenez, maiatzaren 7ra bitartean, lokal hau izango da “gure oinarrizko kanpamendua”.

Bertan egingo dituzte bilerak, logistika lan guztiak ere bertatik bideratuko dituzte. Datorren herri kontsultarako aldez aurreko bozka ere egoitza berri honetan eman ahalko da. Eta oraintxe bertan ziurrenik garrantzitsuena, boluntarioak antolatzeko gunea ere izango da egoitza. “Zabaldu gure mezuak, animatu zuen ingurukoak, boluntarioen zerrenda handitzen jarraitu beharra dugu”, gogorarazi zuten Herritzartu Elkartetik, inaugurazio ekitaldian.



**Aldez aurreko bozka egoitza honetan egin ahal izango da. Etxebeste kalean dago Herritzarturen egoitza.**

**Laguntzaileentzako izen ematea**

Boluntario edo laguntzaileen zerrenda osatu nahi du Herritzartuk. Astelehenetik ostiralera zabalik izango da egunotan Etxebeste kaleko lokala, 18:00-20:00 artean. Bertaratzera gonbidatzen gaituzte, egoitza ezagutu eta baita maiatzaren 7ko galdeketako antolaketa lanetan parte hartzeko izena ematera. Argibideak bertan jaso ahalko dira.

Jada laguntzen aritu edo boluntario gisa aritzeko izena eman dutenei eskerrak helarazi dizkiete Herritzartutik. “Eskertzea, orain arte batean eta bestean laguntzen aritu zaretenoi. Oso eskertuta gaude, pozik. Jende dezente dago dagoeneko laguntzaileen zerrendan. Horrek adierazten du, hilabete eta erdiren faltan, jende askoren artean ari garela antolatzen. Herri galdeketaren ideia planteatzen zutenen helburuak betetzen ari garela. Oso pozik gaude horregatik eta hala zabaldu nahi dugu”, adierazi zuten lokalaren irekiera ekitaldian, Herritzartutik. Hurrengo asteotako ekitaldietan parte hartzera deitu dute.

# Erabakitze eskubideari buruzko hitzaldiak

## Martxoak 31 ostirala

19:00 Hitzaldia Sutegin: “Erabakitze eskubidea Katalunian eta Euskal Herrian. Ze paper jokatzen ari da gizarte mugimendua?”. Hizlariak: Elena Jimenez (Òmnium Cultural) eta Pello Urzelai (Gure Esku Dago). Elkarrizketatzailea: Mertxe Aizpurua (kazetaria).

## Apirilak 1 larunbata

12:00 Berme eta Jarraipen Batzordeen osaketa Potxoenean.

## Apirilak 5 asteazkena

19:00 Hitzaldia Sutegin: Tolosaldeako galdeketaren ingurukoak ezagutzeko aukera. Hizlariak: Kike Amonarriz (soziolinguista, telebista aurkezlea) eta Garbiñe Biurrun (epailea).

## Apirilak 21 ostirala

19:00 Hitzaldia Sutegin: “Erabakitze eskubidea alderdi politikoen ahotan”. Hizlariak: Luke Uribetxeberria (EAJ-PNV), Marian Beitialarrangoitia (EHBildu) eta Juantxo Iturria (Ahal Dugu-Podemos).

## Informazio gehiago:

usurbilgureeskudago@gmail.com
Facebook: Gure Esku Dago Usurbil
Twitter: @GureEskuDagoU

## Bolondres faltan

Maiatzaren 7ko herri galdeketari begira, Herritzartuk bolondresak behar ditu.

Nagusiki bi funtzio hauek betetzeko: hautes-mahaietan egoteko edota laguntzaile lanak egiteko (segurtasuna, irisgarritasuna, eta abar).

**Nola egin naiteke laguntzaile?**

Bolondres gisa izena emateko epea apirilaren 5ean amaituko da. Izena emateko:

■ Herritzarturen lokalera hurbilduz: astelehenetik ostiralera, 18:00-20:00 bitartean.

■ Hitzaldietan jarriko diren mahaietan izena emanez.

## Ostegun honetan, galdera adosteko hitzordua Zubietan

Zubiartean Elkarteak ostegun honetan, martxoaren 30ean, 19:00etan Kaxkapen deitu duten lan saioan adostuko dute maiatzaren 7rako antolatzen ari diren herri kontsultarako galdera. Elkarte kideen iritziaz gain, herritar gehiagorena jaso nahi dute modu horretan.

**Mario Zubiagaren laguntza**

“Gainera, lansaio horretan Mario Zubiaga EHUko irakaslearen laguntza izango dugu. Zergatik ez dugu herri galdeketa Zubietako etorkizunaz ere galdetzeko aprobetxatzen? Zubietarrok udalerri batean bizi nahi al dugu? Ziur kanpo laguntzarekin galdera eder bat adosten dugula. Erakus dezagun gure etorkizunaz erabaki nahi dugula beste behin ere!”, luzatu diete gonbita zubietarrei. Zubiartean Elkartetik berri eman dutenez gainera, galdeketa babesteko manifesturako 100 sinadura inguru bildu dituzte jada. “Zinez eskertu nahi dizuegu zuen prestutasuna! Zorionak Zubieta!”, adierazi dute ohar bidez Zubiartean Elkartetik. Taldearekin hartuemanetan jarri eta kontsultarako manifestua sinatzeko bideok dituzue:

Facebook: Zubiartean
zubiartean@gmail.com


**Mario Zubiaga EHUko irakasleak hartuko du parte ostegun honetako lan-saioan.**

# Maiatzaren 7ko galdeketei babesa azaldu die LAB sindikatuak




**Maiatzaren 7an egingo diren herri galdeketen alde agertu da LAB sindikatua.**

Maiatzaren 7an Usurbilen, Zubietan eta Lasarte-Orian egitekoak diren galdeketei babesa agertu die LAB sindikatuak.

**Greba hezkuntza publikoan**

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan, martxoaren 22rako deitua zegoen grebak eragina izan zuen bereziki Zubietan. Bertan erabatekoa izan zen greba deialdia. %75eko jarraipena izan zuen LAB, ELA eta Steilas sindikatuek deituriko lan uztea, murrizketen aurkakoa, LOMCE eta Heziberri bertan behera uztea eskatu, hezkuntzan inbertsio handiagoa egin edota lan baldintzak hobetzearen aldekoa izan zen.

# Bote luze desafioa, erabakitzeko eskubidearen alde

Maiatzaren 7ko Usurbilgo eta Zubietako herri kontsultak girotze aldera, Usurbilgo Pagazpe eta Zubieta Pilota Elkarteko bosna kide lehian jarriko dituzten bote luze desafioa antolatu dute elkarlanean Herritzartu eta Zubiartean elkarteek, apirilaren 9rako 12:00etan Zubietako Errebote plazan.



**Apirilaren 9an jokatuko da Errebote plazan.**

Gipuzkoako hainbat herrietan ari dira jokamolde hau suspertzen. "Usurbildarrok zein zubietarrok badugu eskarmentua pilota jokoetan, batzuk esku pilotan eta besteak errebotean. Oraingoan, ordea, ez du inork abantailarik edukiko, bestelako joko baten baitan jarriko baititugu lanean gure pilotariak: bote luzean, pilota jokoaren modalitaterik zaharrenean alegia", adierazi dute antolatzaileek. Ekintza gehiago ere iragarri dituzte egun horretarako. "Bertaratu zaitezten animatzen zaitugu herri galdeketak antolatzen gabiltzan bi elkarteetatik. Euskal usadioaz gozatzeko aukera bikaina izango dugu", iragarri dute.

## Errenta aitortzeko garaia

Apirilaren 6an abiatuko da autolikidazio proposamenak onartzeko epea. Apirilaren 11tik aurrera eskatu ahalko da errenta mekanizaturako hitzordua. Eta modalitate honetako nahiz Internet bidezko aitorpenak, apirilaren 18tik aurrera aurkeztu ahalko dira. Informazio gehiagorako: 902 100 040/ gipuzkoa.eus

## "Zure enpresa nola sortu eta kudeatu" ikastaroa

Beterri-Buruntzako Udalek sustatu dute programa hau, eta enpresa bat sortu nahi dutenentzat edo sortu dutenentzat bideratuta dago. Ekintzaileei formakuntza eskaintzen zaie enpresa sortzeko edo kudeaketan laguntzeko. "Gertu Asesores de Enpresa y Abogados SL" izango da kurtsoa eskainiko duen enpresa eta Lanbideren kolaborazioa izango du.

- Ikastaro hau doanekoa da.
- Ikastaroa Andoaingo Urigain etxean eskainiko dute, apirilaren 26an eta 27an.
- Bi txanda, aukeran: Goizez, 9:00-13:00. Arratsaldez, 15:00-19:00.
- Informazio gehiago: ekinean@andoain.eus 943 304 221 (Nerea Yurrebaso) Lanbideko bulegoetan.

## KzGuneko hurrengo ikastaroak

Apirilaren 3tik aurrera, 16:00-20:00 artean zabalik.

- Martxoak 30, 09:00-11:00: "Informatika lainoan. Bildu eta partekatu zure informazioa".
- Martxoak 31, 09:00-11:00: "IKT-ak bizitza hobetzeko".
- Apirilak 3-6, 16:00-18:00 "Facebook. Erabiltzaile gehien dituen sare soziala".

# Ingemarreko langileak: “Oraingo kontseilariak ez daude lantegi honen alde”

Ataka estuan segitzen dute Ingemarreko langileek. Argi dute ordea, denbora luzez bizi duten egoera bidegabe eta zail hau gainditzeko zer behar duten; inbertsiogile bat, “oraingo hartzekodunen lehiaketatik atera dezan, eta gure lantegiaren aldeko apustua egin dezan; gure lantegia izan baita enpresaren ikurra. Kontseilari talde berri bati aukera eman behar zaio, ea Ingemar Taldearen arazoa konpontzen asmatzen duen”.




**Ingemarreko bazkideek ezohiko batzarra egin zuten martxoaren 24an, Donostiako Gipuzkoako Bazkundean. Batzarra ospatzen ari zen egoitza atarian elkarretaratu ziren Ingemarreko langileak.**

Hala adierazi nahi izan zieten Ingemarreko langileen batzordeko kideek Ingemar Taldeko bazkide akziodunei, martxoaren 21ean Donostian egin zuten agerraldian. Lantegi honen aldeko apustua egiten segitzea eskatzen diete bazkideei eta “oraingo kontseilariak enpresatik kanporatzen ahalegintzeko, oraingo kontseilariak ez baitaude lantegi honen alde”. Konfiantza zeharo galdua dutela diote Ingemarreko langileek. “Ingemar Taldea zuzentzen duen Kontseiluak promesa asko egin dizkie erakundeei, bazkideei, bankari eta langileei, baina emandako hitza ez du inoiz bete; hori dela eta, lehen izan zezaketen sinesgarritasuna galdu egin dute guztiz”, nabarmentzen dute.

*LANGILEEN ORDEZKARIAK*

***“Ingemar Taldea zuzentzen duen Kontseiluak promesa asko egin dizkie erakunde, bazkide, bankari eta langileei, baina emandako hitza ez du inoiz bete”***

## Epez kanpo, kapitala sartzen

Gogorarazten dutenez, Ingemar Taldeeko bazkideek kapital-gehikuntza bat egiteko baimena eman zioten Administrazio Kontseiluari urriaren 22an egin zuten batzar orokorrean. Batzar hartako aktan jasoa dagoenez, Administrazio Kontseiluak milioi bat euro eskuratu behar zituen hilabete eta erdiko epean, egungo bazkideen edo inbertsiogile berrien artean.

Baina aipatu kapital-gehikuntzarik ez du egin aurreikusita zuten epearen baitan. Usurbilgo plantako langileen batzordeak salatu duenez gainera, epez kanpo, orain bai, kapital-gehikuntza gauzatzeko epea igarota, “haiek berak ari dira kapitala sartzen, enpresaz jabetzeko, baina edonola ere legezko epeetatik kanpo. Gainera, Kontseilu horrek bi kide baino ez dituenez, gutxiengoan dago, eta ez du ahalmenik kapital-gehikuntza formalizatu eta erregistratzeko”. Egoera honen aurrean argi utzi nahi du langileen batzordeak, “bi irregulartasun horiek eginez gero, haien mesederako egingo dute, eta enpresa hau noraezean eramaten jarraitzeko, baina inola ere kontuan hartuko ez dutena 74 familiaren geroa izango da”.

# 74 familiaren etorkizuna dago jokoan

Bazkide batzuk urriko batzar hura inpugnatzea erabaki dute, eta “oraingo Administrazio Kontseiluak gehikuntza lortzerik izan ez duela ikusita, ezohiko batzarra deitzea eskatu dute, oraingo Administrazio Kontseilua kargutik berehala kentzeko, hitz eman bai, baina ezer lortzen ez duelakoan”.

Bazkideek ezohiko batzarra egin zuten martxoaren 24an, Donostiako Gipuzkoako Bazkundean. Batzarra ospatzen ari zen egoitza atarian elkarretaratu ziren Ingemarreko langileak. Haien etorkizuna bazkideon esku dagoela adierazi zuten, eta bazkideei Ingemarreko beharginen alde egitea eskatu zuten.

### Kontseilari berriei leku egitea eskatzen diete bazkideei

Oraingo kontseilariak lantegi hau babesteko apustu irmoa egiten ari ez direla ikusita, egungo Administrazio Kontseilua kanporatzen ahalegintzea eskatzen diete langileek bazkideei, eta honenbestez, kontseilari berriei lekua uztea. “Kontuan hartu behar da erabakiaren menpe 74 familia daudela”, gogorarazten dute.

# OSASUN GIDA 2017


Irati Ibargoien
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA
943 53 92 66

Laster zabalik!

· Errehabilitazioa
· Kirol fisioterapia
· Fisioterapia traumatologikoa
· Fisioterapia neurologikoa
· Terapia funtzionala
· Osteopatia

PILATES TERAPEUTIKO PERTSONALIZATUA

Puntapax 6B, behea ezk. - USURBIL

USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parea doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urruneko lenteetan

Zubiaurrenea, 10 · ✆ 943 370 269 · 675 708 654

2. lente parea doan
2x1
PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Oinutsik
podologia zentroa
943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil

Oinutsik
✆ 943 11 09 54

· Azterketa biomekanikoak · Plantilak
· Papilomak · Erreflexoterapia
· Kolagenozko infiltrazioa · Kiropodiak

Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
108/12 P.E.Z.

*Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua*
*Dermofarmazia*
*Produktu homeopatikoak*
*Maisu formulak*

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 www.iturraldebotika.com

Lizarralde ORTOPEDIA

✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
✓ Produktu ortopedikoen **alokairu zerbitzua**
(oheak, aulkiak, garabiak...)
✓ Arreta pertsonal eta **espezializatua**

Teknikari ortopeda kontsulta · Aholkularitza · Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 baxua, Oiartzun - 943 543 585/ 688 678 583
www.lizarraldeortopedia.eus

LOGOPEDIA
Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA

• Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
• **Ahotsaren tratamenduak:** disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
• **Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak:** dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374


Osasun gidan azaltzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus

# Gurasoak, euskara ikasten

*Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik*, zioen Artzek. Baina horrez gainera, jendeak ikasiko balu, askoz hobe!! Horretan hasi dira aurten Udarregi Ikastolan hainbat guraso; euskara ikasten.


Manolo, Mari Mar eta Begoña euskara ikasteko batzen dira astean bitan Udarregi ikastolan.

Astean bitan elkartzen dira ikastolako gela batean, AEK-ko Maialen Altuna irakaslearekin. Gogoz, ilusioz, eta borondate onenarekin.

DBH 3ko ikasleok, euskara ikasleei galdetegi bat egitea interesgarria iruditu zitzaigun, euskara ikasteak zituen zailtasunak, alderdi positiboak... zeintzuk ziren jakiteko.

Hona hemen beraiei luzatutako galdetegia eta beraiek emandako erantzunak:

**Zer dela eta, hasi zara euskara ikasten?**

**Manolo Garcia:** Beti nahi izan dut euskara ikasi, batez ere hitz egiteko. Asko gustatzen zait.

**Begoña:** Nire semea euskalduna delako, eta berarekin hitz egin nahi dudalako.

**Mari Mar Martin:** Nire semeekin hitz egin nahi dudalako.

**EUSKARA IKASTEN**

***Astean bitan elkartzen dira Udarregi ikastolako gela batean, AEK-ko Maialen Altuna irakaslearekin. Gogoz, ilusioz, eta borondate onenarekin***

**Zein onura ekarri dizu euskara ikasteak?**

**Manolo Garcia:** Euskara ikasten herriko jendea gehiago ulertzen dut.

**Begoña:** Euskara jakiten, hobeto sentituko naiz nirekin eta herriko jendearekin.

**Mari Mar Martin:** Euskara ikasten herriko jendearekin gehiago integratzen naiz.

**Zer da zailena zuretzat euskara ikastetik?**

**Manolo Garcia:** Niretzat zailena euskara ikastetik, deklinabidea da.

**Begoña:** Niretzat hitz egitea dudarik gabe. Asko kostatzen zait.

**Mari Mar Martin:** Hitz egitea.

**Familiari zer iruditzen zaio zu euskara ikasten hastea?**

**Manolo Garcia:** Ondo iruditzen zaie. Hemen bizi gara eta.

**Begoña:** Oso pozik daude! Egunero animatzen naute.

**Mari Mar Martin:** Oso ondo.

**Ikasten duzun hori erabiltzen al duzu?**

**Manolo Garcia:** Pixka bat. Jendeak gazteleraz hitz egiten dit. eta niri lotsa ematen dit.

**Begoña:** Bai, saiatzen naiz. Lanean eta kalean ere bai.

**Mari Mar Martin:** Bai, pixka bat.

**Euskarak mundua zabaldu dizu?**

**Manolo Garcia:** Momentuz ez.

**Begoña:** Noski! Euskaraz gero eta gehiago jakin, gehiago irekitzen zait.

**Mari Mar Martin:** Bai.

Horrelako gogo eta ilusioarekin gauza asko lortuko dituztela ziur gaude. Beste hainbat gurasoentzat ere eredu dira. Ea datorren urteetan guraso gehiago animatzen diren euskara ikastera!!

**DBH 3 mailakoak**









# Eskolarteko bertso txapelketan

Kaixo! Udarregiko LH5, LH6 eta DBH1eko 40 ikaslek, aurreko ostiralean, Orion jokatu zen eskolarteko bertso txapelketan parte hartu genuen eta gure bizipenak kontatu nahi dizkizuegu.

Lehenik eta behin, Ikastolan 13:45ean geratu ginen 14:04eko trena hartzeko. Tren batekin arazo bat sortu zen baina zorionez guri ez zigun eragin. Hala ere, xelebre samarra izan zen Oriotik zetorren trena hartu behar izan genuelako!

Lehenak iritsi ginenez, nahi izan genuen lekuan eseri eta honako gai hau jarri ziguten:

**Uda iristean lo gutxi eta amets asko egiten ditut**

Gaia zail samarra iruditu bazitzaigun ere, askok bukatu genituen egin beharreko 4 kopla edo 2 bertsoak. Bukatu ez zutenek ere, etxean amaitzeko aukera izan zuten. Beraz, presiorik batez!

Bueltako trenean ere, ederki





Aurreko ostiralean Orion izan ziren LH5, LH6 eta DBH1eko ikasleak.

itzuli ginen, ikasle guztiak batera eta elkarrekin barrez lehertzen. Usurbilera, pozik iritsi ginen bizitako esperientziarekin eta ikastolan ikasitakoak, txapeletan erakusteko aukera izan genuelako. Badakizue, animatu eta datorren urtean gehiago!

**LH5, LH6 eta DBH1eko ikasleak**

# Bernat Etxepare Lizeoa babesteko ekimenak

Apirilaren 8ko Dantza Eguna, elkartasun eguna ere izango da. Baionako Bernat Etxepare, Iparraldeko euskal lizeo bakarra laguntzekoa. Eraikin berria hornitzeko 300.000 euro behar dituzte. Horretarako abiatu dute "Hazten gaitu, Hazten dugu" elkartasun kanpaina. Laguntza jasotzeko sagarrondoak salgai jarri dituzte apirilaren 7ra arte, 30, 50, 100, edo euro gehiagoren truke, NOAUA!n, Udarregin, Alkartasuna Kooperatiban, eta Lizardi dendan. Apirilaren 8rako ekitaldiok antolatu dituzte Udarregi Ikastolak eta Bernat Etxepare Lizeoak. Dantza Egun horretan gainera, gure artera egun pasa etorriko dira Lizeoko ikasleak:

**Apirilak 8, larunbata**

■ 10:30 Bernat Etxepare Lizeoa babesteko sagarrondoen landaketa, Udarregi Ikastola atarian.

■ 11:00 Sagastien Paisaia Kulturala ezagutzeko ibilaldia frontoitik, Jakoba Errekondoren eskutik.

■ 11:00-14:00/17:00-19:00 Bernat Etxepare Lizeoa babesteko sagarrondoen salmenta frontoian.

■ Informazio gehiago: betxepare.eus

## Gurasoen nahiz herritarren iritzia jaso nahi dute Udarregi ikastolan

Udarregi Ikastolak, bere hezkuntza eskaintza aztertu eta hobetzeko asmoz, Ikastolako guraso nahiz herritarren iritzi eta ikuspuntuak ezagutu nahi ditu. Ikerketa egiteko Gura Market IN enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu eta galdetegi bat prestatu du. Udarregitik aditzera eman dutenez, "honen berri ematen duen gutuna eta galdetegia posta arruntaz jasotzen ari zarete egunotan". Ikastolak bere zerbitzuak hobetzeko baliatu nahi du informazioa.

**Aukera ezberdinak**

Galdetegia guztiz anonimoa da, ez da inongo identitaterik eskatzen, eta ikertzaile taldeak jaso eta aztertuko ditu erantzunak. "Hori betetzeko hainbat aukera eskaintzen dizuegu", Udarregitik jakinarazi dutenez.

■ Gutunean jasotako galdetegia bete, bertako gutun-azalean sartu, eta itzuli.

■ Online. Honako webguneetan www.udarregi.eus edo www.gura.es

■ Telefono bidez, 626 095 789 zenbakira deituz.

**Zerbitzua hobetzeko xedez**

"Ikastolak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko zuen laguntza ezinbesteko denez, arren, galdetegia bete dezazuen eskatzen dizuegu".




ELORZA
OBRAK ETA ERREFORMAK S.L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL
jon.elorza@hotmail.com



Klik! batean

# Bertatik bertara

**Orain bi urte amaitu ziren Saria hezegunea berreskuratzeko lanak. Ingurumenaren mesederako naturgune aparta izateaz gain, paradisu txiki bat da Aginagako txoko honetara hurbiltzen diren bisitarientzat.**

**Argazkia: Ion Markel**



# Ibilgailu klasikoan, Atlasetara elkartasuna banatzera

Ibilgailu klasiko bat berreskuratu dute, helburu solidario baterako. Konpondu, txukundu eta bidaia luze baterako prestatu dute. Martxoaren 24an abiatu ziren Modes Hernandez eta Luis Coscolin, Loiutik Atlasetara. 5.000 kilometroko bidaia zuten aurretik, Loiutik Algecirasera joatekoak ziren lehenik, ondoren itsasoa ferrian zeharkatu, Marokora heldu eta handik Atlasetara heltzeko.

Bi asteko elkartasun bidaian murgilduak daude; Raid Pandemonium ekimenaren seigarren edizioan parte hartzen ari dira. Bidaiaren helburua, bi lagunok NOAUA!ri adierazi diotenez, "Atlaseko herrixketan bizi direnentzat ahalik eta laguntza guztia eramatea da". Horretarako toperaino betea daramate ondoko irudiko ibilgailu klasikoa; berokiak, kirola egiteko arropa eta materiala, hezkuntza materiala, gozokiak... Eta haiek bezala, materialez goraino beteta doaz, ekimen honetan parte hartzekoak diren gainerako 25 ibilgailuak, antolakuntzako kideekin batera. "Autoak toperaino beteta eramatea da helburua. Ahalik eta material kopuru gehien garraiatzea", Atlasetako herrixketara helduta, zuzenean herrixketako biztanleei garraiatzeko. "Ez dago bitartekaririk. Gu gara herrixka behartsuenetan daudenei zuzenean materiala entregatzera goazenak", aipatu du Luisek.

### Banaketa, zonaldeka

Banaketa etapaka eta zonaldeka egingo dute. "Antolakuntzak ibilbidea zehaztua du. Gu orientatzen gaituzte. Zonalde ezberdinetatik pasa ahala erabakitzen zoaz nori zer banatu", dio Modesek.




**Martxoaren 24an abiatu ziren Modes Hernandez eta Luis Coscolin. Raid Pandemonium ekimenean ari dira parte hartzen.**

*ATLASEKO HERRIXKETARA*

***"Autoak toperaino beteta eramatea da helburua. Ahalik eta material kopuru gehien garraiatzea"***

### Ahoz ahokoa aski, autoa goraino betetzeko

Estreinako esperientzia da bi lagunontzat. Lehendik bidaia hau egindakoek berri eman dietenez, "txundiduta utzi dituzte. Bertakoak oso esker onekoak direla diote, oso jatorrak. Hunkigarria dela ikustea, nola edozerk balio dien, nola edozer eskuzabaltasunez hartzen duten. Hurrengo urtea heltzeko gogoz etortzen direla diote, ibilgailua berriz bete eta hara joateko".

Bidaia honetara abiatu aurretik, materiala biltzeko saiakera egin zuten Usurbilen. Hasiera batean, elkartasun kanpaina honetan parte hartzeko deialdi irekia egitekotan izan baziren ere, ahoz ahokoa aski izan zaie, berehala ibilgailua betetzeko adina material biltzeko. "Ez dakigu nola sartu beharko dugun guztia. Ahal dugun guztia egingo dugu eman diguten guztia eramateko", adierazi ziguten, bidaia abiatu aurretik NOAUA!ri eskaini zioten elkarrizketan.

Babesle ezberdinek eginiko ekarpenak poltsatan bildu zituzten Atlasetara garraiatzeko. "Eskertzekoa da babesle guztion elkartasuna", adierazi dute. Eskertza moduan, autoan islatu nahi izan dute, ekarpenak egin dituztenen izenak.

## "Zaharra da eta kariñoz tratatu behar da"

20-25 urtetik gorako ibilgailuek parte har zezaketen Raid Pandemonium elkartasun ekimen honetan. Modes eta Luisen autoak baldintza hau betetzen du, 33 urte baititu. Iaz erosi zieten gasteiztar batzuei. Zuetako batek baino gehiagok herrian ikusia izango du, Modesek herrian gora eta behera sarritan erabiltzen baitu. Uztailean ospatu zen ibilgailu klasikoen topaketan ere parte hartu zuen. Kilometro batzuk egina ditu autoak; tartean, Marokon bertan egona da, bi lagunok egitera doazen antzeko bidaia baterako ere baliatua izan baita aldez aurretik. Oinarrizko motordun ibilgailua da honakoa. Mantso eta suabe joan beharko dute, asko jota, 70-80 kilometro orduko abiaduran. "Zaharra da eta kariñoz tratatu behar da", diote. Hango pistetan mantsoago, 30 kilometro ordu inguruko abiaduran ibili beharko dute. Autoak "bizirik" segitzen badu, hurrengo urtean esperientzia errepikatzekotan dira.

# GuraSOSek erraustegia gera dezaketen ekimen juridiko berriak ipini ditu martxan

Erraustegia eraiki eta kudeatzeko lanen kontratuaren esleipena atzeratu edotaagian etetea ere eragin dezaketen ekimen juridiko berriak aurkeztu zizkien hedabideei GuraSOSek aurreko astean. Batetik, 2002-2016 urte arteko Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Kudeaketa Plan Integralaren (PIGRUG) iraunaldia luzatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu du GuraSOSek.


GuraSOSek hedabideen aurreko agerraldia egin zuen aurreko astean.

eskaeraren gako nagusiak. Gogoan izan, FCC-ren errekurtsoak automatikoki eten egin zuen erraustegiko lanen esleipena. Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatuak FCCren errekurtsoa martxoa amaierarako ebaztea aurreikusia badu ere, erraustegiko lanen esleipenean beste bi hilabeteko atzerapena ekarri dezake GuraSOSek aurreko astean eginiko eskaera honek.

Horrekin batera, FCCk erraustegiko lanen esleipenaren harira aurkezturiko errekurtsoa ebazteko foru gobernuari bere burua eskumenik gabeko adierazi eta errekurtsoa EAEko administrazio organoari igortzea eskatu dio, “Foru Auzitegia ez delako organo eskuduna FCCren errekurtsoa ebazteko”. Gainera, GuraSOS–ek helarazitako dokumentazioaren arabera, lehendik adierazi du GHK-k lehendik eskumen gabezia. 2013ko maiatzaren 14an, bere eskumen gabezia adierazi zuen Urbaser enpresak GHKri jarritako errekurtsoaren inguruan. “Bertan, aipatutako foru organoak eskumen gabezia adierazi zuen eta eskuduna ebazteko organo autonomikoa zela”, dio guraso taldeak.

**ERREKURTSOAK**

***2012-2016 arteko Hiri-Hondakinen Kudeaketa Plan Integralaren (PIGRUG) iraunaldia luzatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu du GuraSOSek***

## FCCren errekurtsoaren zain

Eskumen gabezia ere badu gai honetan Foru Auzitegiak, GuraSOSen esanetan, GHK-ren baitan Debabarrena Mankomunitatea baitago, eta Mankomunitate honetan Gipuzkoako beste zenbait udalerrirekin batera, Bizkaiko bi udalerri; Ermua eta Mallabia. “GuraSOSek salatu du arrazoi horregatixe ezin dela izan ezargarri foru arautegia. Partzuergoaren lurraldeak Gipuzkoako udalez gaindiko esparrua gainditzen du”, ohartarazi dute. Eta honenbestez, Partzuergoa “antolatzeko eskumena legedi autonomikoari dagokio, eta horrek, jakina, konplikazioak areagotuko ditu eta arazo larria izango da Foru Aldundia oinarritzen den lege arkitekturarako”. Horiek, FCC-k aurkezturiko errekurtsoaren ebazpenari begira guraso taldeak egindako

## Irtenbide adostuaren alde

Bide juridikoaz gain, lan lerro berriak irekitzera doa laster guraso taldea. “Garrantzia handiko bi gizarte ekimen dira, irudimentsuak eta berritasun handikoak, GuraSOSen iritzian egoera desblokeatzea lortuko dutenak”, aurreratu dute. Aipatu moduan, ekimen berriok laster emango dituzte ezagutzera. Guraso taldearen iritziz, “gatazkaren konponbidea erraztuko dute datozen hilabeteotan”. Beste behin gogorarazi dutenez, ekimen juridikoen gainetik, hondakinen kudeaketarekin dugun arazoari irtenbide adostua ematea da guraso taldearen helburu nagusia.

## Aurrekontuen Foru Arauaren aurkako errekurtsoa

Aipatu bezala eta aldez aurretik iragarria zuen moduan, beste ekimen juridiko bat ere abiatu du GuraSOSek. “Administrazio auzietarako errekurtsoa jarri zuen martxoaren 21ean, eta demanda idatzia formulatu du Gipuzkoako Lurralde Historikorako 2017ko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 8/2016 Foru Arauaren Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren kontra”. Xedapen honen kautelazko etendura ezartzea eskatzen du GuraSOSek eta EAEko Auzitegi Nagusiak eskaera hau ebatzi artean, Foru Administrazio Auzitegiak eten dezala FCCk jarria duen errekurtsoaren tramitazioa.

## Ingurumen baimen bateratuaz

Abian duten beste ekimen juridiko bati buruzko argibideak ere eskaini ditu GuraSOSek. Erraustegiaren ingurumen baimena kautelaz etetea eskatua du GuraSOSek. Aldiz, EAEko Auzitegi Nagusiaren bigarren sekzioak otsaileko 15eko autoan ukatu egin zuen eskaera hau. Honen aurrean, GuraSOS–ek berraztertze errekurtsoa jarri zuen. Guraso taldearen esanetan, laster ebatziko du EAEko Auzitegi Nagusiko administrazio-auziekiko Salaren bigarren sekzioak. Edozer gertatuta ere, GuraSOSetik iragarri dutenez, “ebazpen horren aurka kasazio errekurtsoa jar daiteke Auzitegi Gorenean”.

Bigarren kasazio errekurtso bat ere aurkeztu du GuraSOS–ek EAEko Auzitegi Nagusiaren administrazio-auzietarako Salaren lehen sekzioak 2017ko urtarrilaren 27an emandako epaiaren aurka, “zeinak ezetsi zuen GuraSOSek erraustegiaren kontratuaren tramitazioa eteteko egindako eskaera. Aipatutako kasazio errekurtsoa tramiterako onartzeko dago”.

# Soinurbil, iruditan



**Argazkiko gazteek adi-adi jarraitu zuten Juan Luis Atxegaren organo erakustaldia. Argazkia: Zumarte Musika Eskola.**



**“Kontu kantari” haur kantuen kontzertuan, antzezleek eta txontxongiloek bat egin zuten. Argazkia: Zumarte Musika Eskola.**



**Lezo eta Usurbilgo txistulariak batera aritu ziren Salbatore elizan. Argazkia: Zumarte Musika Eskola.**



**Martxoaren 22an Beasaingo Loinatz Musika Eskolakoak izan ziren bisitan. Argazkia: Zumarte Musika Eskola.**



**Rockalean taldekoak kalejiran ibili ziren ostiral iluntzean. Argazkia: Zumarte Musika Eskola.**



**Azkoitiko Musika Banda kalejiran ibili zen igandean, eta ondoren kontzertua eskaini zuen frontoian.**

## Rock doinuak Askatasuna plazan

Soinurbil Musika Astea emankorra izan da. Zumarte Musika Eskolako eskaintza oparoaren erakusgarri. Horretaz gain, kanpoko proposamen interesgarriez gozatzeko aukera izan dugu egunotan. Larunbat eguerdian baina, Zumarteko pop-rock taldeak izan ziren protagonistak. Euriaren erruz, Mikel Laboa plazan beharrean, Askatasuna plazan jo behar izan zuten. Zappa, Nesquik, Ixaksonak, Ganbarakada eta The Hastelen’s taldeek euren kantu propioak nahiz bertsioak eskaini zituzten.



**Nesquik taldekoak.**



**Ixaksonak.**




**The Hastelen’s taldea.**



**Ganbarakada taldekoak.**



**Zappa taldekoak.**

# Korrika badator!

Badator zirrara, poza eta mundu bat bidera ateraraziohi duen euskararen aldeko bi urteaz behingo lasterketa ezaguna. Ostegunean Otxandiotik abiatzen den unetik, hizkuntza, kultura eta mundu "Batzuk" irudikatu nahi dituen aldarria, Euskal Herri osora hedatuko du 20. Korrikak. Lasterketaren sortzaileak omenduko dituen edizio hau, egun gutxi barru, apirilaren 4an helduko da gure artera. Gauez hartuko dugu mezu ezkutua gordea izango duen lekukoa; 23:39 aldera.



**Korrika apirilaren 4an iritsiko da gure artera. Eskoletan ordea, goiz partean hasiko dira bateko zein besteko ospakizunak.**

Girotzen hasteko Korrika Batzordeak bi hitzordu deitu ditu asteburuko. Eta apirilaren 4an bertan, ikastetxeek antolaturiko Korrika Txikian hasi ahalko gara gaueko lasterketarako entrenatzen. Adi beraz deialdi guztioi:

## Korrika Batzordearen ekitaldiak

**Apirilak 1, larunbata**

15:30 Mus txapelketa Txiribogan (izen ematea, 15:30-16:00). Sariak:

1.- Arkumea eta bi botila ardo.
2.- 8 txuleta eta bi botila ardo.
3.- Saiheskia eta bi botila ardo.
4.- Gazta eta bi botila ardo.

**Apirilak 2, igandea**

18:30 Olatz Kortaren musika emanaldia frontoian.

## Korrika Txikia

**Apirilak 4, asteartea**

■ Aginagako Eskolan: 11:00 Korrika Txikia Aginagan barrena.

■ Udarregi Ikastolan: 15:20-16:30 Korrika Txikia.

15:20 Urdaiagatik DBH 2-3, Santuenetik LH6D, Bizkarretik LH4A + B, Antxeta taberna paretik LH2 eta Bordatxo taberna paretik HH3koak abiatuko dira.

15:30 Haur Eskolatik LH 6A + B, Olarrondo sarreratik LH5, Atxegaldeko Karobi taberna paretik LH3 eta Gaztelekutik HH5ekoak abiatuko dira.

15:30 Iborla baserritik DBH 1-4 irtengo dira. Kalezarreko aldapan LH3D, Labe Txiki parean LH1, eta Patri jatetxe parean HH4koak batuko zaizkie.

Ibilbideen helmuga: frontoia.

Amaiera ekitaldia frontoian:

-Lekukoaren mezuaren irakurketa.

-Hiru kanta abestuko dituzte: "Oihu bat entzun", "Euskalduna euskaraz", "Aberriaren mugak".

-Tipi-tapa koreografia dantzatuko dute.

-Amaieran, Zirkorrika abestia.

Ondoren, txokolate jana AEKren eskutik. Oharra: erabilitako edalontziak antolatzaileei itzuli!

■ Zubietan: 16:00 Korrika Txikia Kaxkoan zehar, Eskola Txikiko ikasleen eskutik.

16:30 Merienda.

19:30 Joko ezberdinak plazan: Twistter erraldoia, dortsalen margoketa, Boleibol eta Pin pon partidak... eta gehiago, Guraso Elkartearen eta Zubietako Jai Batzordearen eskutik.

20:30 Afaria. Kuadrila bakoitza ardura dadila berea ekartzeaz. Plazan mahaiak egongo dira eta denon eskuragarri: edaria, postrea eta kafea, ZUBIARTEAN Elkartearen eskutik.

22:00 Musika eta jai giroa Kaxkoan.

23:00 Bakoitza bere postuetara! 3,2,1... Goazen korrika!

## 20. Korrika

■ Ordua: 23:39 aldera.

■ Lekukoa hartzea: Zubietako hipodromoko zubia.

■ Lekukoa uztea: Aginagako Mapil.

■ Ibilbidea (11 km guztira): Zubietako hipodromoa, Zubieta, Santuenea, Bizkarre, Kalezar, Kaxkoa (Bordatxoko errotonda, Udala, Kale Nagusia, Atxegalde), Aginaga (N-634 errepidetik).

■ Lekukoa hartuko dutenak: Lanbide Eskola, Zubietako Eskola Txikia, Zubietako Herri Batzarra, Zubietako Jai Batzordea, Ederlan, Berriola, EHBildu, NOAUA!, Elhuyar, Udarregi Ikastola, Usurbilgo Udala, Aginagako Jai Batzordea, Orbeldi Dantza Taldea, Andatza MKT, lagun koadrila bat.

■ Informazioa: korrika.eus

# Datorren astean, Dantza Eguneko ospakizunak

**Apirilak 6-8**

■ Ion Markel Saez de Urabainek aurreko edizioetan ateratako argazkien erakusketa, apirilaren 6 eta 7an 17:30-20:00 artean eta apirilaren 8an egun osoz, Sutegiko aretoan.

**Apirilak 7, ostirala**

■ 19:30 Dantza klasikoko erakustaldia Sutegiko auditorioan: "Dantza Klasikoko erakustaldia, Donostiako udal musika eta dantza eskolaren eskutik. Coral Lopez Castellanos eta Maider Urrestarazu irakasleen Dantza Klasikoko Oinarrizko Taldea, Erdiko Taldea eta Talde aurreratua ikusteko aukera izango da".

**Apirilak 8, larunbata**

■ 10:30 Dantza taldeei harrera Potxoenean. Parte hartzaileak: Ortzadar Dantza Taldea (Iruñea), Erketz Dantza Taldea (Lasarte-Oria), Lainomendi Dantza Taldea (Derio), Orbeldi Dantza Taldea (Usurbil).

■ 11:30 Argazki ofiziala udaletxe aurrean.

■ 12:00 Kalejira herrian zehar. Dantza saioak eskaintzeko geldialdiak egingo dira.

■ 13:30 Ekitaldi nagusia frontoian.

■ 14:30 Dantzarien bazkaria.

■ 18:00 Dantzaldi gidatua frontoian, Ttipika taldearekin.

■ 22:30 "Indiana Jones eta kaliz sakratua" ikuskizuna frontoian, Orbeldi Dantza Taldearen eskutik. "Musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna, 70 herritar oholtza gainean izango direlarik. Indiana Jones abenturazale famatuaren gorabeherak Euskal Herrian zehar, Orbeldi Dantza Taldearen ikuspegitik interpretatuak".

■ Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

# Energia berriztagarrien sustapenean eredu bilakatu da Lanbide Eskola

Joan den larunbatean 100 bat lagun batu ziren Usurbilgo Lanbide Eskolan. Energia berriztagarrien inguruko instalazio berritzaileak ezagutzera hurbildu ziren.

Bisitari guztiek, hiru taldetan banaturik, Usurbilgo Lanbide Eskolak dauzkan instalazio berritzaileak ezagutu zituzten eta Eskolaren proiektu estrategikoei buruzko azalpenak jaso zituzten: energia berriztagarrien instalazioak, mekanikako biltegi adimentsua, hotz industrialeko gela, galdara gela, Enegur, ETHAZI metodologiak garatzeko erabiltzen diren gelak, besteak beste.




**Ia 100 lagun hurbildu ziren Usurbilgo Lanbide Eskolak dituen instalazioak ezagutzera.**

Amaitzeko, Usurbilgo Oinarrizko Sukaldaritzako Lanbide Heziketako ikasleek mokadua eskaini zieten bertaratu ziren denei.

## Teknikari alemaniar baten ekarpena



Erasmus, Erasmus+ eta atzerriko hainbat eskola zein enpresekin proiektu ugari gauzatu eta gero, beste urrats bat eman du Lanbide Eskolak. Zubigune Fundazioa eta Tknikarekin elkarlanean, Lisa Wiedemann aditu alemaniarra kolaboratzaile gisa arituko da Lanbide Eskolan. Wiedemann-ek Alemania, Frantzia eta Luxenburgon hainbat nazioartekotze proiektu garatu ditu. "Bere ezaguera oso baliagarria izango da Usurbilgo Lanbide Eskolak dauzkan Nazioarteko Proiektu garrantzitsuak aurrera atera ahal izateko", Lanbide Eskolatik aditzera eman digutenez.

# Udako ikastaroetako bat Usurbilen egingo da

Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) ikastaroen baitan, Jakin jardunaldia ospatuko da Usurbilen, uztailaren 13an eta 14an, Usurbilgo Udalak, Udako Euskal Unibertsitateak eta Jakin Fundazioak elkarlanean antolatuta. Astelehen honetan sinatu dute hiru erakundeotako ordezkariek, Jakin Fundazioko lehendakari Joan Mari Torrealdaik, Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Arregik eta Udako Euskal Unibertsitateko zuzendari Iñaki Alegriak lankidetzarako akordioa.




**Uztailean egingo da ikastaroa. Usurbilgo Udalak, Udako Euskal Unibertsitateak eta Jakin Fundazioak antolatuko dute elkarlanean.**

Hiru urterako izenpetu duten hitzarmenak, erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen ardurak eta zereginak zehazten ditu. Sinadura ekitaldi honetan, udako jardunaldi honen inguruko zenbait xehetasun ere aurreratu dituzte. Oraindik gaia guztiz itxi gabe badute ere, "hizkuntza, hizkuntzak, euskara, euskarak, jatorria, generoa, klasea, egoera sozioekonomikoa gurutzatzen diren leku horretan gaur eta hemen zer gertatzen den ikusi nahi dugu", iragarri du Jakin Fundazioko zuzendari Lorea Agirrek. Eta alkateak iragarri duenez, ez da jardunaldi akademiko soila izango. Udaletik, egitarau akademikoari ongi josia egongo den "bestelako ekintza osagarriak eta jendaurrekoak ere egin nahi ditugu". Egunotan Usurbilgo plaza hartzeko gonbita luzatu die alkateak, jardunaldi honetan interesa izan dezakeen orori.

*XABIER ARREGI*

***"Ez da jardunaldi akademiko soila izango. Bestelako ekintza osagarriak eta jendaurrekoak ere egin nahi ditugu"***

## Hitz-Ahok bi ikastaro iragarri ditu

Hitz-Aho Guraso Elkarteak ikasleei nahiz gurasoei zuzenduriko bi tailer antolatu ditu.

**Buruhandiak**

"Gure buruhandia egiten": HH4-5 eta LH 1-2 ikasle eta gurasoei zuzendua. Apirilak 29, maiatzak 6, 13 eta 20 (larunbatetan, 16:00- 17:30).

**Buztina**

"Buztina lantzen": LH 1-6 ikasleei zuzendua. Maiatzak 5, 12 eta 19 (ostiraletan, 17:00- 18:30).

**Izen-ematea**

Apirilaren 24ra arte izango da. hitzaho@udarregi.eus helbidera idatzi eta tailerra, izen abizenak, maila, eta telefono zenbakia utzi. Tailer bakoitzeko gehieneko taldea 15ekoa izango da eta izen ematearen arabera onartuko dira. Tailer bakoitzaren prezioa 15 eurokoa da.

# Euskal Herriko 57. Itzulia gure artetik igaroko da

Iaz bezala, apirilaren 3tik 8ra ospatuko den Euskal Herriko 57. Itzulia gure artetik igaroko da. Apirilaren 6an izango da, Donostia eta Bilbo lotuko dituen Itzuliko etapa luzeenaren, 174,1 kilometroko zirkuituaren baitan. Txirrindulariak 13:09 aldera abiatuko dira Ibaetatik (Tolosa etorbidetik) eta Añorgatik barrena Errekalde zeharkatu eta N-634 errepidetik Txikierdi, Usurbil eta Aginaga paretik igarotzen ikusiko ditugu txirrindulariak. 13:18 aldera espero dira Itzuliko partaideak Usurbilen, 13:22 aldera Aginagan. Eta N-634 errepidetik, Oriorantz segiko dute gero.



**Apirilaren 6an eguerdiko 13:09ak aldera igaroko dira txirrindulariak. Añorga aldetik iritsiko dira eta N634 errepidea jarraituz Aginagarako bidea hartuko dute.**

Bezperako etapa, hirugarrena, Gasteizen hasi eta Donostian amaituko da. Apirilaren 5eko proba ere gertutik igaroko da; Aia (16:38 aldera), Orio (16:52 aldera) eta Mendizorrotz gainetik (17:04 aldera). Igeldorantz (17:08 aldera) egingo dute gero txirrindulariek eta handik behera Donostiara. Bulebarrean amaituko da apirilaren 5eko etapa, arratsaldeko 17:43ak aldera.

**Haimar Zubeldia, Itzuliko partaideetako bat**

Aurtengo Itzuliak, Hego Euskal Herriko lau hiriburuak izango ditu abiapuntu edota helmuga. Iaz bezala, Haimar Zubeldia (Trek-Segafredo) usurbildarrak parte hartuko du.

Itzuliari buruzko informazio gehiagorako:
itzulia.eus
@ehitzulia

## Eskubaloi partidak

**Apirilak 1 larunbata**

■ 09:30 Alebin mutilak, Burunztaldea: Udarregi 5C-Udarregi 5A
■ 09:30 Alebin mutilak, Burunztaldea: Udarregi 6C-Udarregi 6A
■ 10:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Ereintza Todo Terreno
■ 11:45 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Aiala C Zarautz
■ 13:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Leizaran A
■ 17:15 Kadete neskak, Foru Aldundiko Txapelketa: Usurbil K.E.-Dario Bus Elgoibar
■ 19:30 Senior mutilak, 1.nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Anaitasuna

**Apirilak 2 igandea**

■ 10:00 Alebin mutilak, Gipuzkoako Errendimenduzko Txapelketa: Usurbil K.E.-Zarautz A ZKE
■ 11:30 Alebin neskak, Gipuzkoako Errendimenduzko Txapelketa: Usurbil K.E.-Saieko
■ 16:00 Infantil mutilen Gipuzkoako Selekzioaren entrenamendua Zarauzko Antoniano Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko jokalari Ekaitz Ibargoien deitu dute.
■ 16:00 Kadete mutilen Gipuzkoako Selekzioaren entrenamendua Donostiako La Salle Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko jokalari Eneko Furundarena deitu dute.

## Futbol partidak

**Apirilak 1 larunbata**

■ 10:00 Alebin neskak:
Udarregi 5-Urnieta 6
Udarregi 6A-Astigarraga
■ 17:00 Erregional mutilak: Usurbil F.T.-Axular K.K.E.

**Apirilak 2 igandea**

■ 10:00-13:00 Topaketa: Futbol Eskola, 2007-2008:
Usurbil F.T.-Allerru K.J.K.E.

## Errifa zozketa

1.333 izan da Usurbil K.E.-k martxoaren 25ean eginiko errifen zozketako zenbaki saritua. Zenbaki honen jabeari, bi lagunentzako otordua egokitu zaio Aialde-Berri sagardotegian.

# Beintza-Ziga mendi irteerarako izen ematea apirilaren 5ean itxiko da

Apirilaren 5era arteko epea dago Andatza M.K.T.-k hilaren 9rako (07:30ean autobusez Oiardo Kiroldegitik) antolatu duen Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko 32 kilometroko laugarren etapan izen emateko. Plaza kopurua mugatua izango da, bazkaria norberak eraman beharko du. Gogoan izan, “autobusa Belaten 20. kilometroan zain izango dugu, nahi duenak Zigaraino Belatetik autobusez joateko”. 10 euroko ordainketak kontu zenbakiotako batean egin beharko dira:
Rural Kutxa:
3008 0259 1630 0543 0321
Kutxabank:
2095 5069 0710 6848 9805
Informazio gehiagorako:
andatza.com



**Argazkia: Mikel Zubelzu, www.andatza.com orritik hartua.**







## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. Tel. 630 490 844.

90 m$^2$ pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m$^2$ (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m$^2$ trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m$^2$. 637 22 88 60

Pisu bat salgai. 90 m$^2$. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

BOE-ko 79m$^2$ etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

### Alokairuan

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta sukaldea. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 786 .

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m$^2$, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da kafeteri batean lan egiteko. Astean zehar egun bat eta asteburutan. Bidali kurrikulum-a posta kutxa 16 zenbakira 20170.

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile titulduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa



**Zorionak Annie!**
Muxu handi bat etxeko guztien partetik.

**OHARRA:** 2017ko apirilaren 7an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: apirilaren 3an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo hospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

### BESTELAKOAK

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituena. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoan entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzaingora haurrentzako botika eta higienerako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Kutxabank | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Martxoak 30 - apirilak 09

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 30 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Ostirala** | 31 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Larunbata** | 01 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Igandea** | 02 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Astelehena** | 03 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Asteartea** | 04 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Asteazkena** | 05 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Osteguna** | 06 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Ostirala** | 07 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Larunbata** | 08 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Igandea** | 09 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda martxoa/apirila

## 31 ostirala

- **Herritzartuk antolaturiko mahaingurua Sutegin.** 19:00etatik aurrera, Elena Jimenez eta Pello Urzelai hizlari. Gidaria: Mertxe Aizpurua.
- **Elkarretaratzea.** 20:30ean Mikel Laboa plazan.

## 01 larunbata

- **Sagarrondotik sagardora ikastaroko saioa** 09:00etatik aurrera Potxoenean.
- **Harpidetza-afaria** 21:00etan Aitzaga elkartean. Txartelak, Aitzagan eta Aizpurua okindegian.
- **Korrika badator! Mus Txapelketa Txiribogan.** Izen-ematea: 15:30-16:00.

## 02 igandea

- **Korrika badator!: Olatz Kortaren kontzertua.** 18:30ean frontoian.

# "Sagarrondotik Sagardora" ikastaroan, garbitasuna aztergai

Alkartasuna Usurbilgo baserritarren kooperatibak otsailetik irailera antolaturiko ikastaro zikloaren baitan, gai hau hartuko dute hizpide: "Garbitasuna kalitatearen lagun. Sagardoa egurrezko ontzietan eta sagarrondoaren bizimodua". Larunbat honetan, apirilak 1, 09:00-13:00 artean Potxoenean. Egoitz Zapiainek eta Jakoba Errekondok zuzenduko dute saioa.

Izen-ematea bideratu edota informazio gehiago jasotzeko: 943 361 114.

- alkartasuna@usurbil.com
- alkartasuna.eus



**Egoitz Zapiainek eta Jakoba Errekondok gidatuko dute larunbat honetako ikastaroa.**

## Elkarretaratzea eta harpidetza afaria

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak bi hitzordu deitu ditu asteburuturako:

- Martxoak 31, 20:30: Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.
- Apirilak 1, 21:00: Harpidetza afaria Aitzagan elkartean. Menua: porru-pastela, orkatz gixatua, flan-tarta, edariak, kafea. Txartelak aurrez salgai Aitzagan eta Aizpurua okindegian. 20 euro (langabeek 14).

## Errigorako oliba olio bidoien banaketa

Nafarroa hegoaldean ekoitzitako oliba olio bidoiak eskatu dituzuenok adi. Martxoaren 30 eta 31n egingo dugu bidoien banaketa NOAUA!n. Bidoiak jasotzerakoan egin beharko dira ordainketak. Kontserbak eskatua dituzuenok, ekainaren 1 eta 2an bideratuko dugu banaketa. Informazio gehiagorako: errigora.eus

- elkartea@noaua.eus
- 943 360 321

## Datozenak

### Usurbil-Arantzazu bidea osatzeko deia

Hamarkada luzeko tradizioa berrituko dute datorren apirilaren 13an. Usurbildik Arantzazurako bidea oinez osatuko du herritar mendizale talde batek, eta haiengana batu nahi duen edonork. "Aukera polita, kirol pixka bat eginez, egun pasa eder bat egiteko", adierazi dute antolatzaileek. Honatx xehetasun gehiago:

- Eguna: apirilak 13, osteguna.
- Abiatzeko hitzordua: 05:00etan, frontoi atzetik. Poltsak (aldatzeko arropa, oinetakoak) jasoko dira autobuserako.
- Amaiera: Arantzazun, arratsaldeko 19:00ak aldera. Usurbilen 21:00ak alderako.
- Prezioa: hamaiketakoa, bazkaria, askaria eta autobusa, 50 euro.
- Izen ematea, aurrez telefono zenbaki honetan: 600 669 276 (Joxemi).

### Euskarazko literatura topaketan, '33 ezkil'

Apirilaren 26an asteazkena, Miren Gorrotxategiren "33 ezkil" eleberria aztertuko dute 19:00etan Sutegi udal liburutegian. Liburuaren ale ezberdinak jada Liburutegian daude eskuragarri.









# OSASUN GIDA 2017


Irati Ibargoien
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA
943 53 92 66
Laster zabalik!
· Errehabilitazioa
· Kirol fisioterapia
· Fisioterapia traumatologikoa
· Fisioterapia neurologikoa
· Terapia funtzionala
· Osteopatia
PILATES TERAPEUTIKO PERTSONALIZATUA
Puntapax 6B, behea ezk. - USURBIL

USURBIL OPTIKA
Bigarren lente parea doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urruneko lenteetan
Zubiaurrenea, 10 · 943 370 269 · 675 708 654
2. lente parea doan
2x1
PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Oinutsik
podologia zentroa
943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil
Oinutsik
podologia zentroa
943 11 09 54
· Azterketa biomekanikoak · Plantilak
· Papilomak · Erreflexoterapia
· Kolagenozko infiltrazioa · Kiropodiak

Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
108/12 PEZ
Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua
Dermofarmazia
Produktu homeopatikoak
Maisu formulak
Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95
www.iturraldebotika.com

Lizarralde ORTOPEDIA
✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
✓ Produktu ortopedikoen alokairu zerbitzua (oheak, aulkiak, garabiak...)
✓ Arreta pertsonal eta espezializatua
Teknikari ortopeda kontsulta · Aholkularitza · Produktu gama zabala
Kazkazuri 1 baxua, Oiartzun - 943 543 585/ 688 678 583
www.lizarraldeortopedia.eus

LOGOPEDIA
Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA
• Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
• Ahotsaren tratamenduak: disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
• Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...
Aurreko hitzordua: 635 701 374


Osasun gidan azaltzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus



Aginaga Sagardotegia / Aitzaga Taberna / Aizpurua Okindegia
Aldamu Konponketak / Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
Ane Ile-apaindegia / Arruti Harategia / Artzabal Baserria – Jatetxea
Bixen Ile-apaindegia / Bordatxo Taberna / Elexpe Ile-apaindegia / Eroski City
Esnaola Janari-denda / Esnaola Lurrin-denda / Guria Taberna
Imanol Txapartegi Harategia / Intza Ile-apaindegia / Iratze Natur Denda
Iturralde Botika / Itzira Eraikuntzak / Ivan Perez Argazkiak / Juantxo Burdindegia
Kaffa Kafetegia - Gozotegia / Laurok Liburu-denda / Lizardi Liburu-denda
Loli Lizarralde Estilista/Lurda Mertzeria / Marije Arropa Denda / Mikel Arrandegia
nl Ile-apaindegia / Opil-Goxo Okindegia – Gozotegia / Otar-Goxo / Pauma Arropa denda
Pello Arrandegia / Saizar Sagardotegia / Txalaka Fruta-denda / Txapeldun Taberna
Txiriboga Taberna / Txirinbolo jostailu-denda /Txirristra Taberna /Usurbil Optika

hurbilago